

astirik ez. Gerostik liburu pilla egiña ta idazlan bakan batzuek “ZER” eta “EUSKERAZAINTZA” aldizkarietan.

Jakiña, ba ditu ondo aukeratuak euskal idazle maitenak: TXOMIN AGIRRE, LIZARDI, LAUAXETA, ORIXE.

EUSKERAZAINTZA'KO kide berexia daukagu Iñaki Zubiri; 1972'garren urtea ezker, asieratik ain zuzen.

Gaur egun ba ditu bere kezak ere: “EL-BATUAK EKARRI DUEN TXIROTA-SUNA TA ZITALKERIA”. Euskera asko maite duelako esaten digu ori.

Erriaren euskeraz, eten gabe, idazten dula, nolako gizona den agertzen digu, baita ere aberriak bear duen ziñezko gudaria: beti lanean, erne ta zutik, azkeneraño.

LATXAGA

ANDONI KORTAJARENA EUSKERAREN GUDARIA

Taldeko liburua: HAUTSA KENDUZ II- ALTZA.

Andoni Kortajarena'ren lana: “HERRERA'TAR ZAAR BATEN BIZIKASKIZUNAK”.

Argitaratzailea: DONOSTI'KO UDALA 1994.

Amabi orrialdeko idazlan batean, Andoni Kortajarena'k, Herrera delako auzoaren berri zarrak ematen dizkigu. Gazte batzuek autsa kentzen asi ziren: itzaldia antolatzen, argazki erakusketa ta liburu bat bi izkuntzetan argitaratzen.

Kortajarena'k auzoko edestiaren urrats zarrak ematen dizkigu euskeraz. “HERRERA”, ura zela esaten digu; ALTZA, berriz, erri zarra. Lendabizi, 1845'garren urtean, Madril'etik Irun'era dijoan bide-zabalaren zatia eraiki zuten, eta, geroago, 1864'garren urtean, Norte'ko tren-bidea egiña izan zan.

Ezbear aundiak gertatu ziren, baita ugolde galantak. Pixkanaka, den dena etxez josi zuten. Sagardotegiak nolakoak ziren esaten digu. 1940'garren urtean ALTZA Donostia'k irentsi zuen.

Orrela, ALTZA'KO auzo galanta onetan Andoni Kortajarena'k euskal giroa, euskeraz ereiten du, baita gure nortasuna zuzpertzten.

Lendik, 1968'garren urtean asita, auzoko jaien egitarauan beti euskeraz idazten zuen.

Zeruko Argia delako aldizkarian, Basarri'k adoretuz, asi zen auzoko berriak agertzen; 1967-1972'garren urteko tarte ortan, eunen bat idazlan egin zituen.

Deia izparringian, ere, eundik gora idazlan argitaratu zizkioten 1985-1989 urteen tarte ortan.

Azkeneko aldi onetan, DIARIO VASCO egunkarian, 1989'garren urtetik 1995'garren urtea arte idatzi du; ba daramazki 201 idazlan argitaratuak. Diario Vasco'n idazten asteko Jose Joakin Azurza'k bultzatu zuen.

Euskeraz idaztera zerek eragin zion, galdetu nion bein. Erantzuna ederra

eman zidan: "Lauburua karriketan itsuak ere ikusten dute, antzerkiak berriz euskal giroa zabaltzen di joaz, aberzale kutsoa egunero sendotu bearra dago euskera goratuaz". Bere buruari maiz esaten zion: "Gudari zera ta ortan jarraitu bear, euskeraz idazten".

Zartzaroa artzerakoan, euskera lantzea erabaki zuen. Ortarako Jon Onatibia'ren ikastaroetan ibilli zen.

Nor dugu Andoni Kortajarena Aginaga? Herrera'n, 1915'garren urtean jaio zen. Aita Asteasu'tarra zeukan, ama berriz Usurbil'tarra. Zortzi seme-alaba euki zituzten. Lasalle'tarrekin ikasi zuen eta gazterik lanean asi.

Anaiarteko gudan, gudariekin joan zen, Saseta taldearekin. 1937'garren urtean, jorraillan, INTXORTA mendiko borrokan zauritu zuten, ezkerreko sorkaldan; **ABERRIAREN ALDE ODOLA IXURI ZUEN**. Laredo'n atxiki zuten beste aldekoak eta iru urte, lau illabete ta bost egun beartutako lanetan eragin zioten (León, Teruel, Castellón).

1943'garren urtean, Juana Sarasti Oiartzun'tar neskakin ezkondu zen; iru mutil eta neskatil bat dituzte, baita lau biloba.

Berrogeitabost urtekin ikastera PEÑA AKADEMIARA joan zen; geroztik "kontable" bezala lana egiten du.

Uxola il zenean, Euskerazaintza'koek aren ordezkoa bezala artu zuten eta bertan zintzo jarraitzen du.

Euskalerrri'ko giroa, gaur egun ez du geiegi maite: "Alderdiko aberzaleak euskera erderarekin aldatzen dute; politikoez erderaz mintzo dire ta euskera-aren alde ez dute ardurarik".

Igande ta jai egunetan, Gurutze Done elizan, Intxaurren'ndon, euskal elizkizunetan, irakurle bezala arduratzen da; amabost urte daramazki laguntzen.

Irakurtzeko, euskerarik atsegiñena, baita ausnartzeko, Jesus Gaztañaga'rena deritzaio.

Len, aberriarengatik odola ixuri zuen eta orain atsa gartsuarekin, etengabe euskeraz idazten dabil, gudari bat bezala Euskadi zuzpertzeko.

Aldiro ematen ditu DIARIO VASCO izparringian, Euskerazaintza ta Sasaki-Naski aldizkarien berriak. Garbi asko agertzen ditu gure lanak.

Erabiltzen duen euskerak ba du txinparta, garbitasuna ta erro egokiak. Asko lantzen ditu lerroak. Orrelako lanarekin altxa dezake aberria.

LATXAGA

